

## PELOTA - GIPUZKOAKO HERRI ARTEKO TXAPELKETAKO FINALA ATZO



Atzoko finalistak, Azkoitia (goian) eta Hernani (behean), eta taldeko arduradunak.

## Hernanik ezin irabazi, eta Azkoitia da Gipuzkoako Herri Arteko txapeldun berria

■ Hernanik kadeteetan eta jubenetan galdu zuen, eta afizionatuetan irabazi ■ Lehendabiziko partiduan egon zen klabea, Aizpitarte eta Gorrotxategik oso estu hartu baitzituzten azkoitiarrak.


### Hernanik 1 Azkoitiak 2

AZKOITIAK eraman du aurretiko Gipuzkoako Herri Arteko Pelota Txapelketa, atzo finalean Hernaniri hiru partidutik bi irabazita. Kadeteetan, Aizpitarte eta Gorrotxategik 22-18 galdu zuten; jubenetan, Arrieta eta Otegik ere galdu egin zuten 22-11; eta afizionatuetan Erroizenea eta Mendizabalek 17-22 irabazi zuten.

**Kadeteetan estu-estu**  
Partidu aurretik hernaniarrek esan bezala, Hernanik irabazteko klabea zen azken partidura enpatearekin iristea, eta ez zuten hori egiterik

lortu, eskura xamar izan bazuten ere. Izan ere, lehenengo partiduan Azkoitia eta Hernaniko gazteek izugarriko nor-gehiagoka jo zuten, gehienbat partidu bukaeran. Beti atzetik joan ziren hernaniarrak baina Aizpitartek egindako tantoei eskerrak 20-18 gerturatu zitzaizkien azkoitiarrei, eta horrek frontoiko giroa piztu arazi zuen. Hortik aurrerakoak Azkoitiak egin zituen eta berak irabazi zuen partidua.

**Jubenilek galdu eta afizionatuek irabazi**  
Bigarren partidua errez irabazi zuen Azkoitiak: 22-11. Arrieta eta Otegik txuxen ekin zioten eta 11 tantu artekoan oso parekatuta ibili



### Rufino Rekalde

(Hernaniko delegatua):

“Beti ematen du pena finala galtzeak, baina, aurten gustora egoteko moduan gera. Gure gazteek lan handia egin dute eta oso gertu ibili degu txapela”

ziren. Hortik aurrera ordea, azkoitiarrak erabat dominatu zuten partidua eta aidean ateratu zituzten 22 tantoak.

Afizionatuetan oso partidu dotorea jokatu zuten bi bikoteek. Erroizenea eta Mendizabalek irabazi zuten 17-22 baina, asko jokatu behar izan zuten bata eta besteak. Azkoitiarrak saiatu ziren Mendizabal nekatu arazten baina hernaniarrak ondo eutsi zion, eta azkenean Azkoitiako atzelariak failatu zuen.

**Hernaniko afizioa gustora**  
Hernaniko afizioak gogoz animatu zuen bere taldea (Axei Dantzako kantarekin, adibidez) eta bukaeran txalo zaparrada ederra eskaini zien pelotari guztiei. □

## HERNANI INSTITUTUA

### Matrikula zabalik heziketa zikloak eta batxilergoan

HERNANI Institutuak matrikulazio epea ireki du, batxilergoan edo heziketa zikloetan matrikulatzeko. Orain artean aurrematrikulazioa (izen ematea) egin da, baina, matrikula da, nolabait ere, balio duena. Matrikulatzeko tramite guztiak Agustin Iturriagako eraikuntzan egingo dira, 09:00-etatik 14:00etara. Informazio gehiago 943 551188 telefonoan. □

## MUSIKA ESKOLA

### Aurrematrikula egiteko epea gaurtik ostiralera

MUSIKA Eskolak ireki du aurrematrikula egiteko epea. Gaurtik ostiralera izango da aukera izen ematea egiteko, goizeko 09:00-etatik 13:00etara, Udaletxeko bigarren solairuan (eskubitarra).

**Zozketa bidezko aukeraketa**  
Musika Eskolan hartzeko zozketa publikoa egingo dute izena emandako guztien artean. Zerrendak egingo dira eskatutako ikasketaren arabera eta adinaren arabera. Ondoren zenbaki bat aterako da eta zenbaki horretatik aurrerakoak onartuko dira eta zai egoteko zerrendak ere hortik aurrera egingo dira. Zozketa musika eskolan egingo da, uztailearen 9an, eguerdiko 12:00etan. Zerrendak uztailearen 11n jarriko dira, musika eskolan bertan. □

## ODOL EMAILEAK

### Odola ematea bihar

HILEROKO lehen asteartean ohitura den bezala, bihar, odola ematea izango da Hernaniko anbulatorioan, arratsaldeko 18:30-etatik 20:30etara. □

**HERNANI HIZKUNTZAK**  
Gure Ingelesetxea

UDAKO IKASTARO  
ERDI-TRINKOAK HERNANIN,  
IRAKASLE NATIBOekin

AURREMATRIKULA ZABALIK  
(2003-04 ikasturtekoa ere bai)

Deitu Alan / Joe  
☎ 943 33 11 08  
KALE NAGUSIA 41, 1

**GSE**

Lan aholkularitza  
Fiskala  
Kontablea

Tel.: 943 550254  
Faxa: 943 335801  
Atzietza 51 - behea 20120 Hernani

Catalana Occidente

**Aseguruak**

Bautista Biurrarena Etxegoien

Kardaberaz 40 - behea  
Tel.: 943 332440  
Faxa: 943 556602  
Mobila: 610 292701  
20120 Hernani

**IKASTAROA LANGABETUENTZAT  
LAN ARRISKUEN PREBENTZIOA**  
("Técnico Medio" titulua)  
-INEMek subentzionatua-

300 ordu  
Hasiera: Irailaren 9an  
Bukaera: Abenduaren 4ean  
Ordutegia: 14:00 -19:30  
asteleheneetik ostiraletara

**UROLALDE AKADEMIA**  
Oindi kalea 1 - HERNANI - 943 33 37 11 - 943 33 42 27

**urolalde**

## PELOTA - KRONIKA PELOTA TXAPELKETAKO FINALAK



Txapelketako lehenengo lau bikoteak, antolatzaile eta sari-emaileekin.

## Legarreta eta Ezeiza txapeldun aurtengo Kronika Pelota Txapelketan

■ Txapeldun ordeak Zabala eta Arrieta izan ziren; hirugarrenak Zelaia eta Urdangarin; eta laugarrenak Iñaki eta Tutu ■ Finalean giro ederra izan zen Tilosetan.

**Legarreta-Ezeizak 22**  
**Zabala-Arrietak 18**

LEGARRETA eta Ezeiza aranoarrek irabazi dute hirugarren Kronika Pelota Txapelketa, Zabala eta Arrietaren kontra 22-18 irabazita. Larunbat arratsaldean jokatu ziren finalak Tilosetan, eta ikusle asko inguratu zen bi partiduak ikustera, (tartean apusturen bat egitera ere bai batzuk).

### Bi partidu eder

Hasieran hiru eta laugarren postuak jokatu zituzten Zelaia-Urdangarin eta Iñaki-Tutu bikoteek, eta lehenengoek irabazi zuten 22-9. Partidua, dena dela, emaitzak erakutsia baino gogorragoa joan

zen. Bigarren partidua gogorra eta dotorea izan zen, eta emozio puntu haundiak izan zituen, batez ere bukaeran. Ia partidu guztian Legarreta eta Ezeiza joan ziren aurretik, baina, Zabala eta Arrietak oso gertutik jarraitu zieten. Txapeldunak 21-16 aurreratu zirenean Zabalak bi tanto jarraian egin zituen txokoan, pelota *hil edo bizi* moztuta. Momentu horretan piztu zen emozioa jendearen artean, baina, hurrengo saiakeran txapara joan zitzaion pelota Zabalarari.

### Apustuak euro batean eta txerrikumea jokoan

Apustuek saltsa izugarria jarri zuten atzoko finalean. Antolatzailleek euro bateko apustuak

egin zituzten jendearen artean, eta patiduko emaitza asmatu zuen eraman zituen bildutako diruaren erdia eta txerrikumea. Txerrikumea bizirik zegoen, eta jendearen aurrean *pasiatu* zuten finalean zehar. Horrek ere frontoia parriz jarri zuen.

Sariak Udal Kirol Patronatuak jarri ditu eta Hernaniko Kronikak momentuan errebelatutako bakoitzaren argazkia eman zien 8 finalistei.

### Parte hartzaileei kamiseta

Aurtengo Kronika Txapelketan parte hartu duten guztiek kamiseta bat daukate. Jaso ez duenak Kronikako lokalean bertan izango du (Larramendi kalea, 11- beheka). □



Gorka Tolosa aritu zen finala erretransmititzen eta saltsa polita jarri zuen publikoan.

## JUBILATU ETXEA

### Gandiagarako joateko sortea ostiral honetan egingo da

■ Sortea arratsaldeko bostetan da, betiko lekuan.

JUBILATU Etxeak 10 eguneko bidaia antolatu du irailean Gandiagara (Valencia) joateko. Bidaia irailaren 27tik urriaren 7ra izango da eta beti be-

zala, sortean erabakiko da zein joango diren. Sortea ostiral honetan egingo da, uztailak 4, arratsaldeko bostetan, betiko lekuan. □

## MENDIRIZ MENDI ELKARTEA



Atzean Ardiden mendia, Montaigu tontorretik ikusita.

### Ardiden mendira joateko izen ematea ostegunean bukatzen da

■ Irteera larunbatetik igandera izango da.

MENDIRIZ Mendi elkarteak irteera antolatu du larunbat eta iganderako Ardiden mendira. Ardiden mendiak 2.899 metro ditu eta iguera luze samarra dauka. Hala ere, oso paisaje politak ikusi litezke bertatik. Irteerarako prezioak hauek

dira, pentsio-erdia eta bidaia: 45 euro bazkideentzat eta 55 bazkide ez direnentzat.

Irteerara joan nahi duenak osteguna arte eman lezake izena Mendiriz Mendiko lokalean (Iturregi plaza z/g), 20:00etatik 21:00etara. □

## ■ FUTBOLA

### Jose Manuel Otxotorena hernaniarra izango da Espainiako futbol selekzioko porteroen tekniko berria

■ Orain arte Julen Lopetegui aritu da lan horretan.

JOAN den astea ezkerotik, Jose Manuel Otxotorena hernaniarra da Espainiako futbol selekzioko porteroen tekniko. Otxotorenak Julen Lopetegiren lekua hartu du, azken ho-

nek Rayo Vallecano taldera aldegin duelako. Hernaniarra Valencia taldean ari da lan berdina egiten eta hemendik aurrera batean eta bestean jarraitzeko asmoa azaldu du. □

## ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK	+ FARMAZIAK	
	ASTELEHENA	ASTEARTEA
►Taxiak: 943 550093		
►Udaltzaingoa: 943 333288		
►DYA: 943 464622	►Egunez: Aizpuru Latxunbe Berri 11 ☎ 943 336077	►Egunez: Correa Perkaiztegi 8 ☎ 943 551933
►Anbulatorioa: 943 006666		
►Jokalari anonimoak 943 331103	►Gauetz: Aizpuru Latxunbe Berri 11 ☎ 943 336077	►Gauetz: Correa Perkaiztegi 8 ☎ 943 551933

## LAN ESKAINTZA

TOPAGUNEAK KAZETARI-SUTATZAILE BAT ETA BANAKETA ARDURADUN BAT KONTRATATU NAHI DITU

### Eskakizunak:

#### KAZETARI-SUSTATZAILEA:

- Herri aldizkarietan esperientzia izatea, kazetari zein kudeaketa lanetan.
- Euskara ondo menperatzea. - Harremanetarako erreztasuna.
- Gida baimena eta autoa izatea.

#### BANAKETA ARDURADUNA:

- Logistika eta kudeaketa lanetan esperientzia izatea.
- Euskara ondo menperatzea. - Harremanetarako erreztasuna izatea.
- Gida baimena eta autoa izatea.

#### Lan baldintzak:

- Behin-behineko kontratu luzagarriak egun osoko dedikazioaz.
- Lantokia, Topagunearen Abadiñoiko egoitza.

Informazio gehiagorako: **Dobera Euskara Elkartera** (Larramendi 6) edo deitu **943 33 27 99 ra**.